

EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATzea. LEHEN HEZKUNTZA

AURKITU EGINGO DITUGU




NESKATOAK GOITIK HEGAKA

Neskato nahiz mutikoek, denek, dute aukera imajinatzeko, zerbait egin dezaketela sinesteko, eta gaur egun zer diren edo etorkizunean zer izan nahi duten pentsatzeko. Alabaina, bizitzaren bide honetan, generoaren arabera sozializazioarekin egiten dute topo, eta oztopoak eta trabak jartzen dizkiete, “izan behar dutena” gehitzen baitiote horri guztiari, neskato edo mutikoak izatearen arabera.

HELBURUA

- Genero-oztopoak gainditzeko alternatibak bilatzea
- Errespetuz eta elkarrizketarako jarrera irekiaz parte hartzea
- Norberaren pertzepzioan dauden genero-oztopoak aztertzea
- Norberaren desioak adieraztea, estereotipoak albo batera utzita

GARAPENA

Jarduera honi ekin aurretik, komeni da  ariketa egitea, giro lasaia lortzeko eta ikasleak era horretako jardueretara ohitzeko

Hasteko, jardueraren helburuak azalduko dizkiegu ikasleei.

Neskatoek sozializazio-prozesuan aurkitzen dituzten oztopoei heltzeko,. Nunila López Salamerok “Marizipritzinek ez du zorioneko galeperrik nahi” ipuina erabiliko dugu .

Testuan, autoreak sinbolikoki feminismoa izan daitekeenari, hezkuntzari, berdintasunean oinarritutako hezkuntzari egiten dio erreferentzia:

Jarduera hasteko, ikasle guztiak borobilean eserita egongo dira; lurtean eser daitezke edo, bestela, aulkietan, baina garrantzitsua da borobilean jartzea elkarren aurpegiak ikusteko. Ondoren, ipuina irakurriko dugu, edo ipuina irakurri eta orrialdeak erakusten dituzten Youtubeko bideoetako bat jarriko dugu.

Irakurri eta gero, eztabaida txiki bat sustatuko dugu ikasleekin

- Zer iruditu zaizue ipuinaren amaiera?
- Zer esan nahi du zorioneko galeperrak ez dituela nahi?
- Zer behar du zoriontsu izateko?

Genero-sozializazioaren desberdinkerian sakontzeko, tamaina ezberdinetako harriz beteriko hiru saski jarriko ditugu erdigunean. Harrietako bakoitzak landuko dugun diskriminazio mota bat ordezkatu du. Ordenan landuko ditugu. Horretarako, eta harri bakoitzak ordezkaten duenaren arabera, ikasleei noizbait edo askotan esan dizkieten gauzei buruz galdetuko diegu. Harri txikienetatik handienetara joango gara. Jarduera dinamikoagoa izan dadin, ikasleei esan diezaiekegu dagokion saskiko harritxo bat hartzeko adibide bat ematen duten bakoitzean. Gero, ikasle bakoitzak zenbat harri dituen kontatuko dugu, harri gehien nork dituen eta zein tamainatakoak diren ikusteko.

EMAKUMEEN JAKINTZA ETA HAIEN EKARPEN SOZIAL ETA HISTORIKOA INTEGRATZEA. LEHEN HEZKUNTZA

- Harririk txikienek KANPO-EDERTASUN ANDREA ordezkatu dute. Ikusarazi nahi ditugun mezuak haurrengandik espero den itxura estetikoari lotutakoak dira. Adibidez: neskatoak altuak eta argalak eta mutikoak indartsuak eta ausartak dira.
- Harri ertainek neskatoak edo mutikoak izateagatik jasotzen ditugun irainak ordezkatu dituzte: ISLA JAUNA da. Adibidez: neskei potolo, itsusi eta tuntun esatea eta mutilei koldar, oilobusti.
- Harri handienek neskatoen eta mutikoen sozializazioaren desoreka ordezkatu dute; DESBERDINKERIA JAUNA izango da bat. Neskatoei GUTXIAGO ematen die eta mutikoei GEHIAGO. Adibidez: neskatoak ez dira hain indartsuak, ez dute hain azkar korrika egiten; mutikoak indartsuagoak, ausartagoak dira.

Oztopoak identifikatu eta gero, ikasleei desberdinkeria harrizkoak askatasun-hego bihurtzeko gonbita egingo diegu. Horretarako, kartulina bana hartuko dute hurrek. Bi zatitan banatu eta bi hego irudikatuko ditugu. Ondoren, moztu egingo ditugu. Kontu handiz ibili hego biak uztartzen dituen kartulina zati bat uzteko. Hego zuriak prest dauzkatenean, aurreko saioan identifikatutako harrizkoak gogoraraziko dizkiegu eta harri horiek ordezkatzeko dutenari buelta eman eta harriez libratzeko proposamenak bilatuko ditugu. Jardueraren atal honetan, garrantzitsua da mezu positiboak bilatzea, hego-ehuleak izatea “NAHI BADUZU, AHAL DUZU” mezuarekin. Gure ikasleak beren hegoen diseinuan mezu positiboak, marrazkiak, koloreak, eta abar jartzera animatuko ditugu. Hegoak bukatuta daudenean, hegoak jantzi eta jolastokira atera gaitzke ikastetxeko gainerako ikasleek ere ikusi eta irakur ditzaten.

Jarduera hau bi saio bereizitan edo saio luze bakarrean egin daiteke. Garrantzitsuena da bi atalak lantzea; hau da, oztopoak ez ezik, oztopo horiei aurre egiteko moduak ere lantzea.

IRAUPENA

Dinamika honek bi ordu inguru iraungo du, baina bi saiotan ere egin daiteke.

BALIABIDEAK

- Kartulina zuri bat neskato eta mutikoko, errotuladoreak eta margoak, tamaina ezberdinetako harriak, harriak sartzeko saskiak, artaziak, proiektorea, proiektzio-pantaila, ordenagailua.
- “Mariziprintinek ez du zorioneko galeperrik nahi” . Nunila López Salamero. Txalaparta.

GEHIAGO JAKITEKO:

Jardueraren azalpenean adierazi bezala, ipuin fisikoa erabil daiteke, (eta ikasgelan bertan irakurri) edo Interneten dagoen bideoren bat jarri.

Hona hemen ipuinerako esteka bat: <https://www.youtube.com/watch?v=ctT9uB3Y5Ng>